



Osakidetza

Faktura elektronikoa ezartzea

Web zerbitzuaren bidez faktura elektronikoak automatikoki kudeatzeko alta/baja eskatzeko prozedura



Bertsioa: V0.2

Data: 15/05/18



KONTROL ORRIA

ALDAKETEN ERREGISTROA

Aldaketa	Aldaketaren arrazoia	Aldaketaren arduraduna	Aldaketaren data
1	Hasierako dokumentua	Aurrekontuak Kudeatzeko Zuzendariordetza	2014/12/17
2	Prozeduraren eta harremanetarako helbidearen aldaketa	Aurrekontuak Kudeatzeko Zuzendariordetza	2015/5/18



AURKIBIDEA

1	SARRERA	4
1.1	Testuingurua	4
1.2	Dokumentuaren xedea	5
2	FAKTURA ELEKTRONIKOAK AUTOMATIKOKI KUDEATZEKO ALTA ESKABIDEA.....	6
2.1	Hornitzailea: alta eskabidea	6
2.2	Osakidetza: alta egiaztatzea.....	7
3	FAKTURA ELEKTRONIKOAK AUTOMATIKOKI BIDALTZEKO BAJA ESKABIDEA	9
3.1	Hornitzailea: baja eskabidea	9
3.2	Osakidetza: baja egiaztatzea.....	9
4	1. ERANSKINA – ESKABIDEAREN FORMULARIOA.....	11



1 SARRERA

1.1 Testuingurua

Abenduaren 27ko 2013/25 Legea, "faktura elektronikoak sustatzeari eta Sektore Publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeari" buruzkoa, argitaratu ondoren, legeak sektore pribatua behartzen du herri administrazioei faktura elektronikoak igortzera. 2015eko urtarrilaren 15ean sartu da indarrean aipatu legea.

Hori dela eta, Osakidetzak ondasun eta zerbitzuen hornitzaileen eskura jarri du faktura elektronikoaren sarrera gune orokorra bere egoitza elektronikoan (www.osakidetza.euskadi.eus).

Gune hori derrigor erabili beharko da abenduaren 27ko 2013/25 Legeak, faktura elektronikoak sustatzeari eta Sektore Publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeari buruzkoak, 4. artikuluan adierazten duen ondasun eta zerbitzuen hornitzaileek igorritako fakturak aurkezteko.

Nolanahi ere, abenduaren 27ko 2013/25 Legeak, faktura elektronikoak sustatzeari eta Sektore Publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeari buruzkoak, 4. artikulua bigarren paragrafoan ezarritako eskumenarekin bat etorriz, Osakidetzak betebeharrak salbuetsiko ditu gehienez ere bost mila euroko zenbatekoa duten fakturak. Dena den, horrek ez du eragotziko aurrerago beste neurri batzuk hartzea horren inguruan.

Sarrera gune orokorraren bidez, jarraian adierazi bezala aurkeztu ahal izango dira faktura elektronikoak:

- a) **Banan-banan**, Osakidetzako webgunearen bidez. Horretarako, beharrezkoa izango da pertsona fisikoaren, pertsona juridikoa ordezkatzen duen pertsona fisikoaren edo pertsona juridikoa ziurtagiri elektronikoak. Horiek ziurtagiri-zerbitzuen emaile batek emango ditu, zehazki, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak argitaratutako konfiantzako zerbitzuen zerrendan agertzen den batek, urriaren 16ko 767/2009/EE Batzordearen erabakiari jarraikiz.
- b) **Automatikoki**, web zerbitzuetako interfazeek ezarritako komunikazio-sistemaren bidez. Horrela, faktura elektronikoak automatikoki igorri ahal izango dira hornitzailearen fakturak kudeatzeko sistematik. Horretarako, hornitzailearen fakturak kudeatzeko sistemak Osakidetzako faktura elektronikoaren sarrera gune orokorreko web zerbitzuekin integratuta funtzionatu behar du.



1.2 Dokumentuaren xedea

Dokumentu honek web zerbitzuaren bidez faktura elektronikoak automatikoki kudeatzeko alta/baja eskabideak egiteko jarraitu beharreko prozedura jasotzen du (aurreko ataleko b puntuan dago zehaztuta).

Web zerbitzuaren bidez faktura elektronikoak automatikoki kudeatu nahi dituzten hornitzaileek, lehenik eta behin, prozedura hau bete beharko dute. Hala, fakturak automatikoki igortzeko kanal hori sarrera gune bakarrean erabiltzeko asmoa dutela adieraziko dute.



2 FAKTURA ELEKTRONIKOAK AUTOMATIKOKI KUDEATZEKO ALTA ESKABIDEA

Hornitzaileak bere sistema ekonomikoak integratu nahi baditu fakturak sartzeko web zerbitzuen bitarteko Osakidetzaren puntu orokorrarekin, integrazio horretarako beharrezkoak diren garapenak egin beharko ditu.

Osakidetzak hornitzaileen eskura jarri duen web zerbitzuen interfaze horrek hornitzaileak eta Osakidetzak elkarri bidalitako mezuak sinatzea eskatzen du, erakunde ziurtatzaile ofizial batek igorritako ziurtagiri elektroniko aplikagarriaren bitartez.

Ziurtagiri hori hornitzailearen eta Osakidetzaren sistemen arteko SOAP mezuak sinatzean erabilitakoa izango da; berez ez da fakturen sinadura elektronikoa (Osakidetzak ez ditu alde zurretik erregistratzen fakturen sinadurak).

2.1 Hornitzailea: alta eskabidea

Osakidetzak eskura jarri duen web zerbitzuarekin integratu nahi duten ondasun eta zerbitzuen hornitzaileek mezu elektroniko bat igorri beharko dute adierazi den helbidera. Honako hau adieraziko dute mezuaren gaien: **“Web zerbitzuko alta”**, informazio hau zehaztuta:

- Hornitzailearen datuak:
 - Izen soziala.
 - IFZ.
- Harremanetarako pertsonaren datuak:
 - Izen-abizenak / Saila.
 - Telefono-zenbakia.
 - Helbide elektronikoa.
- Web zerbitzuaren bidez faktura elektronikoak automatikoki kudeatzeko hirugarrenen zerbitzuak erabiliko badira, hirugarren horien harremanetarako pertsonaren datuak:
 - Izen soziala.
 - Izen-abizenak / Saila.
 - Telefono-zenbakia.
 - Helbide elektronikoa.



Nabarmendu behar da Osakidetzako ondasun eta zerbitzuen edozein hornitzailek bere kabuz kontsultatu ditzakeela bere fakturak, hirugarren batek horiek bidali edo sinatu dituen alde batera utzita. Horretarako, fakturak kontsultatzeko ondorioetarako, atarian egiaztatu egiten da atarira sartzeko erabiltzen den ziurtagiri digitalaren IFK bat datorrela hornitzailearen IFKrekin faktura elektronikoan.

- Hornitzailearen aplikazio-ziurtagiriaren alderdi publikoa, SOAP mezuak sinatzeko erabiltzeko. Ziurtagiri hori hornitzailearen (edo, hala denean, hirugarrenaren) sistemak eta Osakidetzak elkarri igorritako SOAP mezuetan erabiliko da. Ez dira fakturen sinadura elektronikoak (Osakidetzak ez ditu alde aurretik erregistratzen fakturen sinadurak).

Dokumentu honen I. Eranskinean jasotzen da aurreko datuekin osatu beharreko formularioa. Helbide honetara igorri behar da:

fakturaelektronikoa.facturaelectronica@osakidetza.eus

Mezu elektronikoaren Gaian hauxe adieraziko da:

Web zerbitzuko alta

2.2 Osakidetza: alta egiaztatzea

Hornitzaileak informazioa igorri eta gero, Osakidetza eskaera bideratzen hasiko da, eta hornitzaileari bai egiaztapena bai Osakidetzak fakturak automatikoki bidaltzeko duen web zerbitzuan sartzeko URLa bidaliko dizkio. Osakidetzako hornitzaileak hirugarren bat eskuordetzen badu web zerbitzuaren bidez fakturak bidaltzeko, hirugarren hori izango da web zerbitzuan sartzeko URLa jasoko duena.

Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, ikusi Osakidetzaren egoitza elektronikoan dagoen dokumentu hau: *“Contrato de Servicio. Servicios Portal”*.



Informazio gehiago

Azaldutako prozeduraren inguruan zalantzaren bat izanez gero, gurekin harremanetan jar zaitezke:

fakturaelektronikoa.facturaelectronica@osakidetza.eus

Web zerbitzuaren bidez faktura elektronikoak kudeatu ahal izateko beharrezkoa den gainerako dokumentazioa (DIR3 kodeak, Zerbitzuen Kontratua, erabilera kasuak) Osakidetzaren egoitza elektronikoan eskuratu daiteke:

Enpresentzat > Administrazio-prozedurak > Fakturazio Elektronikoa

(http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-ekproc01/eu/contenidos/informacion/factura_electronica_osk/eu_def/index.shtml).



3 FAKTURA ELEKTRONIKOAK AUTOMATIKOKI BIDALTZEKO BAJA ESKABIDEA

3.1 Hornitzailea: baja eskabidea

Osakidetzako fakturazio elektronikoaren plataforman web zerbitzuaren bidez faktura elektronikoak automatikoki kudeatzeko altan dauden hornitzaileek nahi dutenean eman ahal izango dute baja.

Horretarako, Osakidetzari igorri beharko dizkiote jarraian adierazitako datuak fakturaelektronikoa.facturaelectronica@osakidetza.eus helbidera

- Hornitzailearen datuak:
 - Izen soziala
 - IFZ

Gaian honako hau adierazi beharko dute: “**Web zerbitzuko baja**” .

- Fakturak automatikoki igortzeko zerbitzuan hornitzaileek baja emateak web zerbitzuaren bidez faktura elektronikoak automatikoki kudeatu ezin izatea ekarriko du.
- Automatikoki igortzeko metodoan baja eman ondoren, ez da eragotziko hornitzaileek fakturak formatu elektronikoan kudeatzen jarraitzea Osakidetzako fakturazio elektronikoaren atariaren bidez.
<https://fakturae.osakidetza.eus/>

3.2 Osakidetza: baja egiaztatzea

Baja eskabideak jaso ondoren, Osakidetzak dagozkion jarduketak egingo ditu hornitzailearen baja gauzatzeko, eta ondoren, hornitzaileak emandako helbide elektronikoaren bidez jakinaraziko zaio.

4 1. ERANSKINA – ESKABIDEAREN FORMULARIOA**Osakidetza/Osatek-en faktura elektronikoa ezartzea****Hornitzaileek bete beharreko galdetegia**

Web zerbitzuaren bidez faktura elektronikoa automatikoki kudeatu nahi badituzu Osakidetza/Osatek-en fakturazio-plataforman, eskertuko genizuke jarraian adierazitako informazioa betetzea.

1. Nor izango da harremanetarako pertsona?

Izen soziala:

IFZ:

Izen-abizenak / Saila :

Telefono-zenbakia:

Helbide elektronikoa:

2. Web zerbitzuaren bidez faktura elektronikoa kudeatzeko hirugarren bat eskuordetzen baduzu, adierazi hirugarren horren harremanetarako datuak:

Izen soziala:

Izen-abizenak / Saila :

Telefono-zenbakia:

Helbide elektronikoa:

3. Fakturak web zerbitzuaren bidez igortzeko baldintza teknologikoa

Galdetegi honekin batera, **Osakidetzari igorri beharko zaio**, jarraian adierazitako helbide elektronikora, **aplikazio-ziurtagiriaren alderdi publikoa**:

fakturaelektronikoa.facturaelectronica@osakidetza.eus

Osakidetzako ondasun eta zerbitzuen hornitzaileak hirugarren bat eskuordetzen badu web zerbitzuaren bidez fakturak kudeatzeko, hirugarren hori izango da **Osakidetzari aplikazio-ziurtagiriaren alderdi publikoa** bidali beharko diona, jarraian adierazitako helbide elektronikora:

fakturaelektronikoa.facturaelectronica@osakidetza.eus

OHARRAK:

Mesedez, idatzi egindako galderen inguruan zure ustez garrantzitsua den edozein ohar

Osakidetzako hornitzailearen sinadura eta zigilua

Hirugarrenaren (hala badagokio) sinadura eta zigilua

Adostasun adierazpena

Abenduaren 27ko 2013/25 Legeak, faktura elektronikoa sustatzeari eta Sektore Publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeari buruzkoak, 3. eta 4. artikuluetan ezartzen duenarekin bat etorritz, Osakidetza erakunde publikoan emandako zerbitzu edo ondasunen hornitzailea edo, hala denean, hirugarrena naizen heinean, adierazten dut Osakidetza erakunde publikoaren fakturazio-plataforma modu egoki eta arduratsuan erabiltzeko konpromisoa hartzen dudala, hori arautzen duen legearen esparruan.

Bidali aurretik adierazi den dokumentazioa, hau da:

- Behar bezala betetako eta (hala denean, hirugarrenak ere) sinatutako galdetegia.
- Aplikazio-ziurtagiriaren alderdi publikoa.

honako helbide elektronikoa honetara:

fakuraelektronikoa.fakuraelektronika@osakidetza.eus